

Brandt eta Europa urten dira garaille La Hayan

Zeruko Argia, 355. zk., 1969-12-21: 4.

La Hayako iru egun artu ditun Europako Elkartearen batzar nagusian asiera-asieratik bi joka-bide nabarmendu ziran: batetik *Frantziarena: Inghaterrak elkartera sartzeko denbora gero ere izango duala* esanaz; eta bestetik *gañentzeko bost estaduak* (Alemania, Italia, Beljika, Olanda eta Luxenburg), esanaz: *au dala egin bear dan lendabiziko lana*.

Frantsesen ordeztz egin duana bere gaurko buruzagi dan Pompidou jauna izan da, ta batzarra irikitze egin zuan itzaldi nagusian esan zuanez: berak bata bestearen urrungo iru pauso oiek ikusten dituela ondoan: 1) orain elkartearen lanak bukatu aurrena, 2) elkarre berak ondoren ikusten zituan beste lan berrieri ekin, eta 3) *azkenik, eta azkenik bakarrik, elkarre beste erri batzuetara zabaldu*.

Gañontzeko estaduen ordeztz, berriz, Brandt alemandarrak itzegin zuan, eta bere ustez bereala asi bear litzakela Inghaterra elkartera sartzeko egin bear diran elkar-izketak antolatzen: *datarren udaberrian asteko moduan bear lutekela*.

Brandt alemandarrak bere itzaldian ala esan zuan:

"Nere erriko Parlamentuaren eta erri beraren izenean diotzuet, ez gendukela gure batzar au amaitu bear gure elkartearen zabaltzeatzaz konkretuki ezer erabaki gabe. Ta nik auxe adierazi nai dizuet: gure elkartera etorri nai dutenei oraintxe esan bear geniokela, baietz, 1970-ko udaberrian gai izango gerala elkar-izketa oiek asteko.

"Guk orain atzera egiten ba degu, emendik aurrerako elkarre au zabaltzeko lan guziak galtzeko arrixkoan gera. Alemania-ren aunditze ta indartzeak gure Europako elkarre au desberdinduko, desekilibratuko dualaren beldur diranak, nere oraingo ezkeintza onen alde egon bear luteke.

"Dena dela, emen esan nai det. Inghaterra ta beste Europako gurekin izan nai dutenak palta zaizkigun bitartean, gure elkarre ez dala, ez izan litekiena ta ezta bear lukiena ere izango".

Nabarmen ageri zan ba Pompidou-Brandt burruka moduko ekidura bat sortua zala; ta Brandt-ek irabazi du azkenean Elkarre 1970-go uztaillean ekingo dio elkartera sartu nai duten estaduekin izan nai duten elkar-izketari.

Ara zer dion batzarra amaitu ta urrungo egunean (osteguna, illak 4) *Le Monde* agertu duan editorialak:

"Nork sinistu orain dala illabete batzuek orrelako elkar-artzera sortuko zanik? Joan dan asteartean bertan ez zan ordezkarien artean itzaropenik, itzaldien arteko ezberdiñasunak aundiak baiziran. Eta, ala, de Gaulle-ken agintepean iñoiz gertatuko ez zala uste zana gertatu da. Bere asmoekin beste gañentzekoak gaintzen alegindu bearrean, gure Lendakaria elkar-artzera adiskidetu da. Pompidou-k lortu nai zuan diru arazo bat konponduko diotelaren agindua irabazi du, bañan Franzia orain arteko izan dun bere sozio berririk ez artzeko egon-molde berezia utzi bear izandu du aren ordaiñez.

"Azken komunikadoak bein eta berriz Elkartearen elburu politikoak aitatzen ditu, ta "elkar osatzei" ta Europako unibersidatea" ta Parisen urte onen asieran oraindik ain santu ez ziran beste itz batzuek ere bai. Ala ta guztiz ere, ta au da kaltea, Pompidou jauna mota geratu da Europa guziari bidea erakusteko izan duan eokiera onetan. Berezko duan zentzutasuna dala-ta edo, bere maioria ez atsekabetzeagatik izan dala, batzarraren nagusitza Brandt-i utzi dio nabarmenki; buruzagi onek arkitu du berezko gobiernu-gizonen gaintasun bat, eta orain Parisen gañetik egin duala-ta arrotu liteke gizona bere aberkideen aurrean.

"Alemani Federaleko buruzagiaren nortasuna aundia dala ez dugu dudarik, ta mirari bat ere ba da Führer il eta ogeitamalau urte barru bere erriaren buru orrelako gizon bat ikustea. Bañan jakiña da Alemania goitzeak Europako batasunaren iturburua nolabait naastuko duala. Lenago errez izango zitzaion de Gaulle-ri mugi-aldi onen buru egitea. La Haya Pompidouk izan zuan lana ez zan ain erreza izandu. Bañan ala ere egia da berari eta gure erriari sortu zitzaigun eokiera au az zaigula bear ba da berriro sortuko!